

Eusko kultur gaiak

Eugenio Arraiza
UEUko *Eusko Kultur Gaiak* saileko burua

XX. mendearen bukaeran bizi arren, Euskal Herriko kultura zer den galderari zaila izango genuke erantzutea. Filosofatzeko, poetizatzeko edo nonahi eztabaidatzeko, prest gaudela ematen du. Baina datuak biltzeko eta gure kulturaren berri zehatza lortzeko, irakaskuntza sisteman edo komunikabideetan zabaltzeko, bitartekoak antolatzeko, ez gara lan handirik egiten ari. Zerbait egitekotan, bakoitzak bere lerroan egiten du lana, ikuspegi orokorrako batek bere lana baldintzatuko ote lukeen, beldurrean. Bat gatoz gure kulturaren adierazgarri nagusia dela aitortzerakoan. Nagusia bai, baina bakarra? Gure kulturaren beste azalpenetatik isolatua? U.E.U.ko 1994.go Larraonako ikastaroan *Eusko Kultur Gaiak* izenburupean antolatu ikastaldiaren atarikoak dituzue honako hausnarketa hauek: kultura zer den eta Euskal Herriko kultura gorpuzteko proposatzen diren urratsak.

In spite of living at the end of the XXth century, it is difficult to explain what the Basque culture is. Anyway, it seems that we are ready to philosophize, to poeticise and to discuss anywhere. The fact is that we are not working too hard in collecting data and in getting specific information about our culture in order to expand it through education and communication systems or to organize intermediaries. Everyone works by oneself, been afraid of the possibility that one general view can determine this work. We recognize that this is the most important characteristic of our culture. It really is the most important, but, is it the only one? Is it isolated from other cultural expressions? These matters were discussed during the course of UEU in Larraona, in 1994, under the title of *Basque Cultural Items: what is culture, and steps proposed to strengthen the Basque culture.*

Ikastaro honen izenburua *Eusko Kultur Gaiak* izanik, bertan sartu aurretik komeni zaigu hiru hitz hauek nola ulertzen ditugun argitzea. *Kultura* hitzak, alde batetik, esanahi sakona eta nahastua baitu, eta baita *Eusko Gaiak* sintagmak ere, ikastaro honen mamia eta helburua horiek jorratzea delarik.

1. Kultura

1.1. Kulturaren definizioa

Kultura zer den zehaztu beharko dugu aurrera egin baino lehen, zeren eta kulturaren hainbat eta hainbat definizio izan dira erabiliak eta Euskal Herriko kulturaren ikuspegia eta azterketa ezberdina izango dugu oinarri gisa hartzen dugun definizioaren arabera.

Kultura ahazturaren aurkako borroka etengabea da (Adrian Fucke). Kulturaren arlo bat azaltzen du, oroitzapena. Hiru F: *Fabricar, fabular, fonolizar* (Javier Sádaba), beste hiru alderdi interesgarri adierazten ditu.

Baina kulturaren adar guztiak sartzeko, definizioa ahal dugun era zabalenean hartzea interesatzen zaigu, gero, arloz arloko azterketa, edo zertarako erabiliko dugun mugatzen joateko.

Izadia edo natura ez den guztia kultura da hartu dut gure ibilbiderako abiapuntu gisa. Geroxeago, bide erdian edo, beste kontzeptu batzuk sartze-ko unea izango dugu.

Definizio honetan gure jarrera nondik nora doan uler daiteke, borondate onekoak baldin bagara behintzat. Baina hitz hauetan sakontzen badugu, zenbait gauzaz kontura gaitezke.

Alde batetik, definizio honek bere alde txarra, errena, duela: zaila zaigula naturatik at zerbait aurkitu, zerbait dagoen ziurtatzea.

Teoriaz asmakizun huts litezkeen gauzak asma ditzakegu, baina asmatu dituenak, bere izadia eta natura ere izango du, eta azken finean naturaren, bere naturaren, bere burmuinaren emaitza izango ziren asmakizun horiek, bere nortasunaren islada, besterik ez.

Bestalde, definizio honen alderdi ona izango da, kultura natura bera, natura hutsa, biologia soila, ez dela aitortu behar dugula.

Saia gaitezen beraz, kulturak naturari gehitzen dion hura zer den aurkitzen. Gure izanari, gizakiaren naturari, hain zuzen, zer ematen dion kultura deitzen dugun horrek.

Nahiago dut jarrera materialista honetatik abiatu, espiritualismo- edo razionalismo-kutsua izango lukeen beste batetik baino. Zeren eta, nahiz eta zientzia eta kulturaren arteko bereizketa egin daitekeela onartu, zientzia baino lehenagoko garaietan zabaldutako kulturaren ideia, orain ere nagusi dabilela, gero eta ezabatuago geratzen ari baitzaigu, kontzeptu-pilaketa, daturik gabeko zerbait eta, beraz, transmisio orduan garuneko lurrina besterik ez dugularik.

Platon, Aristotele edo beren ondorengo izan ziren Hegel edo Descartesek erabiltzen zuten diskurtsoa, etereo xamarra geratzen zaigu. Kultura eta naturaren arteko lokarria, bai subjektiboki eta bai objektiboki ezinbestekoa dena zientzi mailan, natura gainditzeko nahian edo, guztiz ahul bihurtzen zuten kulturaren

azalpenetan. Guk, kulturaren alderdi ukiezinaren garrantzia ukatu gabe, hobe dugu erlatibotasun batean kokatu eta maila horretan aztertu, objektibo eta neurgarri dituen ezaugarriak erabiltzen saiatuz.

1.2. Kulturaren teorizazioa

Aipatu bezala, joan diren garaietan pentsalariak eta filosofoak izan dira kultura tratatu izan dutenak.

Grezia eta Erroma nagusi ziren garaietan *téxne* (*homo faber*) eta *lógos* (*homo sapiens*) arteko bereizketa sakona egiten zen. Gizartean esklabutza normala zen eta kultura, bistan da, esklabuetatik urruti zegoen.

Kristautasunarekin gizakiaren esentziaren mailan berdintasuna ezarria izan bada ere, noble eta morroi arteko bereizketak iraun zuen eta arima eta gorputzaren artekoa azpimarratu eta handitu egin zen. Kulturaren teorizazioak, beraz, lan-arloa ez zuen ukitzen.

XVI. mendean *humanismo* deitzen zen pentsaera-korronea, berriz, hasi zen gizakia bere osotasunean hartzen eta, honekin batera, naturarekiko lokarria bizkortzen. Bilakaera honengatik eta merkantilismoaren zabalera-rekin, gizartea emeki-emeki gizarte-zientzietan oinarritzen doa, nahiz eta filosofia batez zuzentzen saiatu.

Hurrengo urratsa Karl Marxek egin zuen Hegelen filosofia gaindituz. «Orain arte filosofoak mundua interpretatzen saiatu dira. Guk, aldiz, mundua transformatzen saiatu behar dugu», bere esaldian adierazten da emandako aurrerapausoaren norabidea. Marxismoa zientifikoa izaten saiatu zen, sozialismo utopikoa gaindi-

tu nahian. Ekonomia industrigintzarekin batera nagusi bihurtzen da gizarte eta estatuaren eraketan. Infraestruturak eta superestruturak, azpiegiturak eta gainegiturak, bereizketa egiten da, baina gainegitura ideologia mailara mugaturik, indar ekonomikoen ondorio gisa azpian geratzen da, nahikoa desprestigiatuta, gutxietsia. Eta jakinduria berria materialismo dialektiko deitzen den prozesuan esku-ratzen da, pentsaera eta materiaren arteko elkarrizketan.

Marxek iraultza bezala izendatu zuen berea, "rupturista", aurrekoen aurkakoa, etena errebindikatu, materialismoa azpimarratuz. Engelesek ondokoa dio: «zerebroaren mugimendu material bat da pentsamendua» (*Dialektik der natur*). Garaikidea zuten Liberalismoa, berriz, antzinako ondorengo bezala agertzen zaigu, izpiritu eta pentsaeraren nagusitasuna materiaren gainean errebindikatu. Bere itzalpean Libreganbismo, Merkatu-gizarte edota Kontsumismoaren arautegiaz osatutako giroa ordea, kondentatzen zuten materialismoa bezain materialista iritsi zaigu edo are gehiago oraindik.

Egun ideologia guztiek porrot egin dutela aldarrikatzen dute filosofo berriek, eruditoek, Postmodernismo garaian gaudela adieraziz.

Kultur gora-behera hauetatik geratu zaiguna metodologia zientifikoa deitzen dena dugu eta jakinduriaren, kulturaren, edozein arlotan erabiltzen da, edo behintzat erabiltzen dela aldarrikatzen dute, arlo bakoitzeko adituek.

Kultura, antzinako orbitan murgilduta jarraitzen dutenek, pentsaera hutsaren mailan kokatzen dute gaur egun ere. Zientzien aurrerapenak

erabiltzen dituztenek, berriz, gure gizarte eboluzionatuen mailan homologatuak izaten direnak, derrigorrez Gizarte Zientzien arloan kokatzen dute kultura, nahiz eta Kulturaren Historia, Pentsaeraren Historia edo antzeko izenburupean kokatu beharrean izaten diren. Zibilizazioen Historia izenez ematen denean ere, joan den garaietako pisuaren eraginez, pentsaera hutsaren garrantzia nagusi ukaiten jarraitzen du halaberharrez.

Intelektualen eta zientzilarien arteko bereizketak, berez zientifikoki ezabatuta izan beharko genukeenak, baina hizkera arruntean erosoegi erabiltzen dugunak, oraindik ere gure kategorietan prozesu berberaren bi mutur ezberdin azpimarratzen ditu.

1.3. Soziologia kulturala

Soziologia sortu zenetik, Gizarte Zientzien arloan kokatua dugu kultura. Ikuspegi berritzaile honek eragina izan du hainbat arlotan. Adibidez historia arloan. Errege edo estatuen historia izatetik, herrien eta gizakien historia izatera pasa da. Gaur egun bizitzaren esparru guztiak ukitzen ditu historiak. Alde horretatik esan daiteke historialariak ez duela esparru berezirik, astronomoek ez bezala, baizik eta kulturaren zoko guztiak ikertzea eginkizun duela, metodologia historikoa erabiltzen duelarik.

Soziologiak kulturari eman dion tankera garrantzitsuena kulturaren azterketa soziologikoa da. Gaur egun gehien erabiltzen den Kulturaren sailkapena ondoko hau dugu:

- Goi-mailako kultura, *alta cultura*, *cultura académica*, Unibertsitatekoa.
- Herri kultura, *cultura popular*.
- Masa kultura, *cultura de masas*, Mass mediatan zabaltzen dena.

Hiruretan kultura hartzen da gizakia- ren aparteko gauza bailitzan, natura- ren aparteko zerbait bailitzan, objektibotasun zerbait balu bezala. Horrela, jakinduriaz gorpuztutako bilduma gisa objektibatuta, kultur ekintzak antolatzeko baliagarri bilakatzen da.

Musika arloan, adibidez, ondokoa dugu:

- Goi-mailako musika, elaboratua.
- Herri-musika, tradiziozkoa.
- *40 Principales* eta salmenten arabera neurtzen den musika.

Hiru sail horietako osagaiak ezin dira objektiboki bereizi. Maila bakoitzean osagai batzuk besteak baino gehiago lantzen edo zabaltzen dira eta horixe da haien artean bereiz litekeena.

Subjektiboki, berriz, erraz bereizten dira igorleak eta hartzaileak nortzuk diren kontutan hartuz. Beraz objektiboki osagai berberarekin osatutako kultura dugu hiru sailetan. Sailkapena, zein eratan, nor den igorlea eta nor hartzailea bereizketan dago egina.

Zentzu honetan Euskal Herriko kultura bat izango dugu, nahiz eta era eta xede ezberdinez kaleratu. Gaztaren osagai berberak, baina hiru eratan emateko prestatuak: xerratan jateko era herritarrean, zatika aluminiozko estalpetan emana eta xehetutako gazta-hautsa, makarroiak hautsezta- tzeko modukoa.

Hiru formato edo emaitza hauek ditugu gaurko gizartean ezinbestekoak: jatorrizkoa, elaboratuagoa eta, azkenik, masifikazioak eta gaurko *pret a porter* bizimoduak eskatzen duen gisakoa. Hirurek dituzte bezeroak, edo gaituzte, baldintza eta uneen arabera, bezero.

Masa kultura dugu hiruretan gazteena. Sinpleegia, elementalena, estandartizatua, zaporegabatuena. Baina kazetariak, irratilariak, telebis-tako langileak, OHoko irakasleak edo etxeoandreen aisialdia betetzeko kultur animatzaileak ezinbestez erabiliko dutena.

Goi-kulturaren arriskua, formalismo gehiegi izatearena da.

Herri-kulturaren eraketan arriskua dugu, denak balio duela pentsatzea, hots, edozein inizatiba, jatorrizko oinarri gabekoa, herri-kulturaren saskian sartzea. Ongi bereizi beharko genituzke *herri* kontzeptua, nortasuna adierazten duena, eta *masa* kontzeptua, zenbaketa huts dena, nortasun gabea, bi gauza ezberdin eta askotan kontrajarriak, elkarri mokoka, ditugarik.

Masa-kultura, makinen produktu bezala neurtzen da: denboraz eta kantitateaz, bereziki. Kulturaren parametroak komunikabideenak bilakatu dira eta horiek, merkatu-sistema barnean daudelarik, salerosketa-neurritan ibiltzen dira. Non geratzen da euskaldunen tradizioan *etxea* hitzak duen aberastasuna «Gure aitaren etxea...», kontsumo-zibilizazioan *etxea* bihurtu zaigun honetan? *Etxea* 'ongi egoteko makina' da (gu eroso egoteko tresnaz beteriko sukaldea, egongela, komuna, zeinen mantenturako teknikoek etorri behar duten). Nolanahi interpretaturik ere, halaxe da. Bere kontraesan eta guzti, zirkuitu horretan sartzen ez dena, gizarte zibilizatuaren eguneroko bizitzan ez dela existitzen esan daiteke soziologikoki.

Masa-kulturaren benetako arriskua politikatik edo gizarte-multzo indartsuenetatik beren interesen arabera asmatua izatea da. Politikariak onartu

beharko lukete kultura autonomoa dena, aske behar duela izan, justizia edo kontzientziaren eremuak bezala; horren alde zerbait egitekotan, indartu, inoiz ez bideratu egin behar duela politikak. Politika zuzena eta sasi-politika bereizteko, herria bizkortzeko den, ala inposatua (masa), auskalo zein interesen mesedetan erabiltzeko den, ditugu parametroak.

Baina balizko kalte horien beldur ezin gara egonean egon Euskal Herrian. Masa-kulturaren arlo honetan bereziki, konturatu behar dugu, gizartean kultura dugula munduan airea bezala: gasa presiobidez zabal-tzen dela eta, besterik ezean, kanpoko aire-korronteak hartzen dutela tokia. Kanpoko korrontetik defendatzeko gordeleku itxia, hormatuta eraikitzea, jatorrizko airearen presioaren ordeaz, gure bizitza usteltzeko zorian jartzea izango litzateke. Azken finean, masa-kultura kontzeptua, kaxkar xamarra agertzen bazaigu ere, gizarte-kultura, *cultura social* bera da, gizarte bateko biztanle gehienek ezagutzen dituzten datuez osaturikoa.

1.4. Kulturaren korapiloaren hariak

Banaketa soziologiko honen ondoren, materialista edo ahal dudan objektiboena izaten jarraituz, zenbait kontzeptu argitu behar ditugu, erabiliko dugun terminologia zehaztuz.

Lehenbizikoz Zientzia eta kulturaren arteko ahaidetasuna hartuko dugu lagun. Zientzia zer den eta zer ez den bereizi egiten da, alde batetik *Natur Zientziak*, objektiboak, zehatzak, aipatuz. Ondoren *Giza Zientziak*. Eta, zientzietatik aparte, *Arteak* deitzen direnak. *Teknika* ere horietatik bereizi egiten da.

Bakoitzaren mugak zehaztea gero eta zailagoa da: arkitektura zein ehunekotan den artea, zenbatean teknika, eta zenbatean zientzia, inork ez digu argituko. Hiru hariak korapilatzen dira soka bat osatuz. Medikuntza naturalak natur zientziekin duen lotura ukaezina da. Ordenagailuz egindako musika, irudi-nahasketetan, artea eta teknika. Horrela arlo gehienetan.

Halere kontzeptu hauek interesgarriak zaizkigu kultur eremua aztertze-ko orduan. Bi eratan lan daitezke gai berberak:

a) Era zientifikoan, neur daitezkeen datuetan oinarrituta eta zientzia mailan homologatuta den moduan.

b) Azientifikoan, adituak ez direnen mailari dagokion beste era batean, non jakinduria eza, sentimendua edo nahikeria maizegi nagusi zaizkigun.

Kultura era zientifikoan aztertze-ko berari dagokion hiztegia argitu behar da, hitz bakoitzari bere edukia emanaz. Ez gara hemen horretaz luzatuko, baina zenbait aipamen behintzat egingo dugu.

Kultura osagaien artean zein dugu nagusia? Argi dago kultura dela izadiaren ezagutza. Gauza bat ezagutzeko bere ezaugarriak ezagutu behar ditugu. Horretarako datuak ezinbestekoak dira, baina nahikoak al dira? Zer garrantzi du haien arteko erlazioak? Zeren eta gerta baitaiteke datu-pila ezagunak izatea zerbaiti buruz, baina haien arteko egitura ez ulertzea. *Jakitea* bat da eta *ulertzea* beste bat. Adimenak biak batuko lituzke. Jakintza kultura handiko pertsonena litzateke.

Eta lehen aipatutako oroitzapena:

Oroitzea hainbesteraino da norberaren ezaugarria, non hortaz markatzen ohi baita zentzu eta erotasunaren arteko muga eta marra. Oroitzapenaren hutsuneak bete eta antolatze-ko era eta moldeez egiten dira berezko aztura, izaera eta nortasun deiturikoak (E. Gil Bera, *Fisikaz Honatago*, 24 or.).

Goiko galdera hauei erantzuteko, kontzeptu horiek zehazteko, ezin da teoria mailan ibili. Kulturari, arlo batzuetan edo bere atal bakoitzean, datuen berri izatea zaigu garrantzitsuena. Beste gaietan, berriz, ulermena izaten da nagusi. Era askotako memoria dago. Eskatzen den ulemena ere berezia izaten da gaiaren arabera. Besterik dugu teorikoki zerbait ulertzetik, praktikoki horretaz baliatzeraino bide luzea izaten dela gehienetan. Lanbideak kultura dira. Trebetasuna, beraz, kultura da. Artista batek, ordea, zenbat dakien axola gutxikoa izaten da bere artegintzarako.

Honekin esan nahi dut, oso arriskugarria dela kulturari buruzko ideia ximpleak, unibertsalak erabiltzea. Kultura da munduko dimentsio guztien ezagupena, bizitzaren ezagupena, dinamikoa beraz, bizidun batek inguruari buruz bildutako altxorra. Bizitzan fruituak era askotakoak direnez gero, ezin da haien artean bat onena aukeratu. Kultur eremuan ere, arlo guztiak dira interesgarriak eta munduko herri guztietan osagai horiekin egindako bildumek, tokiz tokiko kultur gaiek, beren balio berezia dute.

Kultura, datuz osatutako jakinduria da, baina ez nolanahi pilatuta; ulermena antolatutako datuez eta ez teoria hutsean, praktikan baizik, bizitzarako, naturaren aurrerapenerako egokituak. Trebetasuna ere kultura da. Bizi garen gizartean, datuen faltan ez gara bizi,

soberan daude. Gehienetan falta zai-guna ordea, datu-kopuru horrekin zer egin jakitea da. Kultura teorizatu du-tenek, nire ustez, arreta gehiegi jarri diote datu-metaketari, haien ulermenaren eta bizitzarako duten balioagarritasunaren kaltetan.

Azkenean, kulturaren ezagupena, ulermena, trebetasuna izanik, norberaren gauza da, pertsona bakoitzarena. Baina ezagutzeko, ulertzeko eta trebetasuna lortzeko, inguruko laguntza ezinbestekoa zaigu. Eta beraz beste-teen, inguruko, gure aurrekoen kulturaren partaideak izaten gara, gure ezagupen, ulermen eta trebetasunaren ehuneko laurogeita hamarrean.

NATURA			
ezagutu	A		
jakin	R		
ulertu	KULTURA	metodologia	ZIENTZIA
	E		
erabili	A		
	teknika		
Naturaren onerako		ETIKA	

Etika ere aipatuko dut zeren eta Zientzia neutroa baita. Zientziak gizakiaren ahalmena gehitzen du, baina, berez, ez du ongi erabiliko den ziurtatzen. Naturaren onerako de-mentz, beste kategoria batean kokatu behar dugu, etikan, alegia. Halere ez da gure oraingo gaia.

Irizpidea, opinioa, mentalitatea... Kontzientzia, nortasuna... norberarenak eta herriarenak. Hauek ere ezagu-penarekin loturik daude, baina aski da orain azpimarratzea nolabaiteko kultura zutarri dutela.

1.5. Kulturunearen prozesua

Kulturaren alderdi hauek nola funtzionatzen duten azaltzeko, kon-zeptuak baino gehiago kultur unearen

prozesua aztertu behar dugu, kultura bizitza baita, ez teoria. Prozesu hau psikologikoa dugu, ez soziologikoa.

Lau errealtate daude kultur egitate batean :

1. *Gizakia, subjektua*. Ekimenaren fruitua hartuko duena (jakintza, ulermena, esperientzia).
2. *Izakia, objektua*. Naturatik zuzen edo zeharka hartutako zerbait.
3. *Prozesua, kulturizazioa*. Kultur ekintzaren sena eta mamia.
4. *Eragilea, 'agente kultural'* dela-koa.

Lehenengo biak argi daude. Hiruga-rrena, kultura teorizatu dutenek ez dute aztertzen, nahiz eta bertan egon kulturaren mamia. Gehienetan kultur ekitaldietan zenbat pertsona edo nolakoak izan diren, hartzen da kontutan. Gutxiago neurtu ohi da transmititu diren datuen kantitate edo kalitatea. Zenbat ikasi den, zaila da neurtzen eta horregatik aztertu gabe geratu ohi da kultura balantzeetan. Balore askok eragiten du kultur emanaldi batek bizitzarako izango duen baliotasunean, hartzailearen neurrian izango baita: hartzaile bakoitzaren egoera kontutan hartuz, epe laburrean edo luzera begiratur, han edo hemen biziko den, bere bizi-tzaren eta gizartearen gora-beherak zeintzuk izango diren eta abar.

Kultur eragilea berez ez dugu ezinbestekoa kulturaldietan, objektua-ren mezua beste inoren laguntzarik gabe jaso baitezake gizakiak. Proze-sua berez sor daiteke. Gizakiaren sentimenak bitarteko direla, burumui-nak objektuaren ezagupena lor dezake. Gizakia, jakinmina duen zerbait da eta izakia ezagut daitezkeen osagaiez osaturik dago.

Baina, praktikan, katalizatzaile gisa, legamiaren arabera, zirkunstantzia, ezinbestekoa den hurbilpen fisiko edo psikiko gerta dadin eta, izatekotan, eraginkorra izan dadin, kultur eragilearen funtzioa garrantzi handikoa dugu eta gizarte eboluzionatu batean, kultur prozesuaren protagonista.

Egia da autodidaktak, eta gehienetan kulturadunetarikoa hoberenak haiek izaten dira, izan badirela. Edonor izaten da neurri batean autodidakta. Kasu horietan inizatiba, ekimena, subjektua-rengandik atera da ezagupenaren bila. Baina nolabait neurtzeko, ezagutaldi-multzoetan ehuneko gutxi izaten dira horrelakoak. Motibazioa da guregan jakinmina pizten duena eta, gehien-gehienetan, konturatu gabe motibazioa kanpotik datorkigu.

Izakia, objektua, da hauetan objektibo den bakarra. Besteak (gizakia, nolako prozesua, nolako eragina) subjektiboak dira, aldakorak, garaiean garaikoak, tokian tokikoak. Metodo zientifiko bera garaiko mailaren eta bitartekoen arabera aldatzen doa. Baita izanik, eman dezagun kulturaren bilakaera historikoa beti objektibotasun gehiago lortzearen egiten dela, baina hori nahia da, ez ziurtasuna, eta noizbait okerrerako ote dugin beldur naiz.

Azalpen hauek guztiak egin eta gero, ausartzen naiz kulturaren beste definizio bat ekartzera, kulturaren dinamikotasuna adierazten diguna: «Eraikitzen duguna besterik ez dugu ulertzen». Nikanor Ursuarena da, beste definizioak gainditzen saiatzen den azken definizioa. Gerorako sakonduko dugu honen esanahian.

1.6. Metodo zientifikoa

Disziplina edo zientzia bakoitzak bere metodologia du. Sarreratxo honetan ez dugu hori banan-banan zehaztuko, baina bai orokorrean oso kontutan hartu behar den zenbait alde aipatu.

Nola tratatu bada subjektibo diren osagai hauek zientifikoki? Zeren eta metodo zientifikoa erabiltzea dugu kultura ahal dugun heinean objektiboki tratatzeko era bakarra, naturaren ezagupena zientzia bilakatuko duena.

Subjektua tokian tokiko bere egoerari hartu behar da. Ezin da gizakia kontzeptu abstraktu bairatzen hartu.

Prozesua gairik gait, eremuz eremu hartuko da, metodoak egokituz. Horrela egiten da, saiatzen da egiten, kultura elaboratuan. Kulturaren arlo bakoitzak bere metodologia du. Eta orain esan daiteke arlo bereizketa objektu edo formal deitzen den horretan baino gehiago, metodologia tratatzen den arabera egiten dela. Geografiak, Soziologiak, Arkitekturak hiria izan dezakete aztergai, baina bakoitzak metodologia berezi batez tratatuko du objektua.

Herri-kultura bera, zientifikoki tratatu behar da. Herriak eraikiko du (biziko du, hobe esanda) berak sortutako kultura, bizimodua, sinismenak. Sormen-prozesu honek metodologia zientifikorik ez du izango, herria gehienetan horretarako jantzita ez delako. Baina emaitzak, azter daitezke. Aztertu egiten da Etnologia zientziaren metodologiarekin. Datuak, herriaren bizitza bera datua izanik, hantxe izango dituzte aztergai. Herri-musika, adibidez, herri soinu-tresnak, belaunaldiz belaunaldi emanak, edo herri-dantzak,

bertsolaritza, metodologia zientifikoaz aztertzen dira. Gero eta doktorego-tesi gehiago dago gai hauetaz.

Eragileak goi-kulturan, herri-kulturan edo masa-kulturan aritzeko metodologia berezia erabili behar du, bakoitzaren arabera hiru maila hauetan bereizi behar duen prozesua mantentzeko. Bestela, eragin orde, desbideratu eta oztopatu besterik ez du egingo.

1.7. Elikadura

Kontzeptu abstraktu hauek bizi egiten dira, edo behintzat kontzeptuetan isladatzen dena biziduna da. Naturan aurkitzen dugunarekin argitzeko, gure baitan naturalki ematen den prozesu bat erabiliko dut argibide: elikaduraren prozesua.

Subjektua da jaten duena. Objektua, elikadura. Prozesua gizakiaren onerako asimilazioa. Batzuetan zerbait naturatik zuzenean hartuta jaten da. Gehienetan jangarria izan dadin pres-tatu ohi da. Gizakiak ere horretarako egokia den egoeran izan behar du, osasun onean, goseak edo egarriak. Beraz, ezinbesteko zirkunstantzia dugu elikadura eskuragarria izatea. Gure gizarte zibilizatuan are gehiago, oso era erosoan eskuragarria. Ezinezkoa baita elikadura-prozesua “urrunetik” egitea.

Eragilearen aldetik, kontutan hartzekoa da elikadura dohainik ematen digula naturak. Baina gizarte eboluzionatua, ehuneko ehun ia-ia, nekazari-ek, elaboratzaileek, saltzaileek, eta bestek, edo guk geuk, maneiaturako elikadura hartzen dugu. Gutxien elaboratuak direla ematen duten elementuak, oxigenoa edo ura ere, kutsadura dela, kloroa dela eta, gero eta gehiago

banatzaileen bitartez eskuratzen ari gara.

Honelako zerbait gertatzen zaigu kulturarekin. Parekotasuna ez da gehiegi azaldu behar. Baina kontutan hartzekoa da egoera eboluzionatu honek, bitartekoak direla eta, Euskal Herriko kasuan baldintza gogorak ezartzen dizkigula.

Oraindik izango dira batzuk gure kultura, Euskal Herriko Kultura, berez, naturalki eta bitartekorik gabe jaso dezakegula pentsatzen dutenak, adibidearekin jarraituz, Brasilgo yanomani tribukoek egiten duten/zuten gisan. Baina ezinezkoa zaigu egoera birjinara itzultzea eta, gainera, indiarrek bezala jarraitzea ez dut uste euskaldunek izan behar dugun helburua denik.

Euskal Herriko kulturaren transmisio zuzena eten egin da aspaldian. Bi Estatutan eta hiru Komunitatetan banaturik, guretzat maneiaturako elikadura hori ez gara batere kontrolatzen ari:

1. Estatu baten edo bestearen ikuspegiak maneiaturik datorkigu.
2. Gehien-gehienetan erdaraz emanda iristen zaigu.
3. Dagoeneko gure sabelak ere, edo burumuinak kulturaren kasuan, erdarazko elikadura asimilatzeke prestatuagoak izaten ditugu euskaldun gehienok, nahi gabe ere.
4. Kultur merkatuan ez dago “eusko kultura” labela duen salgaiarik. Folklore-merkatuetan turisteei saltzen zaiena ez dut kontutan hartzen.

La verdad aquí contenida tendrá algo que ver, por tanto, con la comprensión de la estrategia por la que la élite social vasca, en convivencia con el poder central de España, proscribió el sistema de signos

popular, implantando en la mente de las gentes, y no solo con la violencia, otro sistema más suyo (M. Azurmen-
di, *Nombrar, embrujar*, 14 or.).

Bizi garen gure gizarte honetan prozesu honi buelta emateko izugarritzko lana egin behar dugula argi dago, kultura, geure nortasuna mantenduko badugu.

Elikadura-prozesua naturala dugu, ez zientifikoa (hau paradoxa). Zientifiko izan daitekeena prozesu naturalaren azterketa da, bai eta beraren informazioa edo irakasketa. Prozesu naturala aztertuz gero, prozesuan eragiteko eran gaude. Egin ere eragiten diogu egunero, bakoitzaren kulturaren neurrian, on edo txarrerako, gauden giroak bultzatuta.

Kulturaren prozesua ere, munduaren ezagutza, ingurukoa, naturala da. Metodologia zientifiko batez hornitzen bagara, eragina izan dezakegu. Bestela, eragiten, erabiltzen gaituzte, nolabait, geure kultura ez dugun neurrian.

2. Euskal Herriko kultur gaiak

Kultura zer den nolabait eta arinki argitu eta gero, ekin diezaiogun Euskal Herriko Kulturari.

Berarekin hasteko, psikologia mailan ez dugu ezer berezirik aipatu behar, mundu guztiko gizon-emakumeek garun antzekoak ditugulako, eta beraz, ezagueraren prozesu berbera. Baina gero ikusiko dugu prozesu honek Euskal Herriarekiko duen mamia.

Era berean, ezinbestekoa izango dugu jakitea, beste edozein kulturatan bezala, Goi-mailako kultura, Herri-

-kultura eta Masa-kultura sailkatuta aurkituko ditugula.

Soziologia mailan, berriz, berezia eta aldapa gora egingo zaigu eginkizuna.

2.1. Gizartea eta kultura

Soziologia mailan kokatuz, oraintxe azaldu behar dut zergatik ez naizen ausartu konszienteki ikastaro honi Euskal Herriko *Kultura* deitzera.

Izen horrek zerbait gorpuztua adieraz lezake, antolatua, Euskal Herrian bizi garenok amankomunean eskura genezakeen moduan dagoeneko duguna. Nire ustez, zehazki hitz egitekotan, horrelakorik ez dugu oraindik. Esan daiteke, gaur soziologikoki inoiz baino ezabatuagoa dugula kultur altxor hori. Beste garaietan izandako kulturaren kate-transmisioa (familiaz familia, belaunaldiz belaunaldi eta herriz herriko kate-transmisioa) eten egin baita ehuneko laurogeita hamarrean. Gaur egun, hezkuntza konbentzionalean eta komunikabideetan hedatzen ez dena soziologikoki galtzear dagoela onartu behar dugu.

Bestalde, Euskal Herriko kultura izatekotan, Euskal Herriko gizartearena izan behar luke. Baina, zein da Euskal Herriko gizartea? Euskalduna? Euskal eremukoa? Euskal Herriko gizarte bat dugu, ala gizarteak? Metodologia soziologikoa erabiltzen badugu, hiru zati nagusi aurkitzen ditugu Administrazioari dagokionez: EAE, Nafarroa eta Iparraldea, bi Estatupean (Espainia eta Frantzia). Hizkuntzari dagokionez, bost eskualde arautegi ezberdin dauzkagu, Nafarroa hiru zatitan banaturik baitago.

Baina ez izutu. Esan daiteke, hain zuzen, nolabait lotuak gaudela: historia,

giza harremanak, hizkuntzarekiko eta kulturarekiko jarrerak, zenbait indar politikoren proiektuak (X. Arzallus, *Nazio eta etnia bat gara*, 94-7-16) biltzen gaituela eta, beraz, nolabaiteko gizartea osatzen dugula. Baina onartu egin behar da Kanada, Belgika, Suizako kasuetan, gizarte-mota bereziaz osaturik direla eta bat egiten dutela. Bosnian, ordea, zer nola osatuko den ez dakigu. Gure kasuan, azterketa soziologikoak erakusten digunez, konplexu eta labainkor xamarra dugu gizartea.

Xumeki izanda ere aipa dezagun bada Euskal Herriko gizartearen egoera soziologikoa.

Javier Elzok egin berri du Euskal Herriko gizarteari buruzko ikerketa. Bertan lortutako datuen emaitza da gure gizartea pluriformea, anitza dela, heterogeneoa. Ez politikoki bakarrik, baizik sakonagoak diren giza baloreetan oinarritutako taldeetan. Jakina, talde bakoitzak eusko kultur gaiak era berezi batean hartuak ditu, edo ahaztuxeak ditu, hobe esanda. Gogora dezagun kulturaren definizio bat izan dela «ahaztuaren aurkako borroka etengabea». Borroka hori, bizi beharraren beste borroketan estalia dugu gaur egun.

Javier Elzok dioenez, Europako beste herrialdeetan zenbait giza balore (demokrazia, inguruarekiko begirunea eta horrelakoak), balore amankomun bezala onartzen diren arren, gure Euskal Herriko gizartean ez dute guztion oniritzia eta gainera gatazka-une bihurtu dira. Beraz, Elzok dio Euskal Herriko gizartea bat bailitzan bezala agertzeari, gehiegizkoa deritzola, «hablar de una sociedad es una generalización». Eta, gehien batean, EAeri buruz ari da...

Egin duen azterketan Euskal Herriko biztanleen tipologia sei multzotan banaturik agertzen omen zaigu. Laburki bada ere tipo bakoitzaren izendapena, barneko ezaugarriak zehaztu gabe, apunte gisa azalduko dizuet:

1. *Vividor-pasota*, % 10'34.
2. *Anticonstitucional*, % 15. Ohitura libreak, politikaz kezkatuta.
3. *Institucional*, % 18. Guztiz kontra-koa: ohizko familia, ohiturak, erlijioa.
4. *Tradicional-apolítico*, % 20. Oso kontserbadorea. Etxekoandre ugari. 1 eta 4 materialistenak dira.
5. *Competidor*, % 14. Ongi ordaindutako lana eta aisealdia helburu.
6. *Tolerante-reformista*, % 23. Ohituretan tolerantia. Ekonomi eta politika kontuetan estua.

Honelako gizartean kultura amankomuna izatea zaila dugu, egiatan.

Kultur gaiak halere Euskal Herrian bizi garenok, amankomunak ditugu. Beharrik. Eta ez dezagun tipo-aniztasun horrengatik amore eman, bere alde ona ere bai baitu.

Gaiak direla garbi dago. Ez da gutxi, ez eta beranduegi ere. Beraz, nahiago izan dut gaiak, eusko kultur gaiak, abiapuntu gisa hartu. Gero geroak.

2.2. Eusko galaxia

Euskal Herriko kultura BAT bailitzan aritzea gratuito izango litzateke, frogatu gabea, azientifikoa, alegia. Gainera, balizko kultura bat izatekotan, beldur izan gintezke ez ote genukeen hartuko monolitikoa, monokordea. Kultura, jakinduria, ezagutza, ezin da mugimendurik gabeko gauza izan.

Kultur eredu bat asmatzekotan,

galaxia baten itxura izango lukeen zerbait proposa dezagun, eredu (*modèle, pattern*) moduan.

Galaxian denetarik dago, gasa, materia, sua, ura, bizitza, baina guztiak ardatz edo zentru baten inguruan mugitzen dira. Dauden indarren gehiketa, bitan laburtzen da: bektore zentripetoa eta zentrifugoa. Biei esker mantentzen da oreka eta mugimendua, bizitzaren posibilitatea. Indar zentripetoa gehiegizko gertatuz gero, galaxiaren osagai guztiak trinkotu eta tinkotu egingo lirateke, mugimendua galaraziz. Indar zentrifugoa gehiegizkoa izanez gero, sakabanaketa, galaxiaren desagertzea etorriko lirateke. Osagai guztiak beste baten menpeko dira.

Barrutik ikusita nahasketa izugarria dela ematen badu ere, kanpotik begiratuta ardatza izan badela asmatzen da.

Galaxia osatzeko ardatza Euskal Herria dugu. Osagarriak, eusko kultur gaiak, bakoitza bere arlo edo planetan. Bakoitza bere indar eta arauz antolatuta, bere metodologiaz, hain zuzen.

Baina arazo handiena, bai praktikan, bai eta askotan teorian ere, aipatutako bi indar nagusien arteko orekan eta borrokan datza.

2.3. Faktore endogeno-exogenoak

Aspaldiko eztabaida dugu kultura arloan unibertsalismoarena, baina inoiz ez da hain harro erakutsi. Langileen Internazionalak unibertsalismo baldintzatu baten alde egiten zuen borroka, langileen ongizatearen alde. Badirudi ordea, gure postmodernismo garaian dagoen orotariko unibertsalismoa,

hoberena dela *a priori*. Ezagupen partziala, tokian tokiko kultura, Herri batena, txarra dela ematen du, ez bada beste guztietara zabaltzen. Eta sofisma honek funtzionatu egiten du. Beraz kanpotik datorrena, unibertsala denez gero, gurea baino zabalagoa, hobea, interesgarriagoa, aurreratuagoa da. Honen parean, gurea zaintzeak, ez omen du merezi.

Lehen aipatu bezala, kultura irekia dela eta kanpoko indarrak edo tentsioak beharrezkoak ditugula onartuz gero, azter dezagun faktore exogenoen eragina, aipaturiko iritziak zuzenak diren aztertzeke.

Garbi onartu behar dugu faktore exogenoak nagusitzen baldin badira galaxia desagertu egingo dela. Unibertsalismoaren defendatzaile sutsuek bost axola zaiela esango dute. Edo bai sentitzen dutela, baina progresoari ezin zaiola aurre egin.

Faktore endogenoak gorde nahian, kanpoko guztia debekatuz, eragotziz gero, historiaren ildoak galduko genuke, hainbat elikagai, dialektikaren indarra. Gure kultura ahulduko litzateke. Bien arteko erlazioa nola dugun antolatuta da gakoa.

Nik onartuko nituzke historiaren progresio edo bilakaeraren alde, gaztelaniaz *desarrollo sostenible* deitzen den hori lortzekotan, norberaren kulturaren izan daitezkeen galerak. Baina arazoa ez da –behintzat eztabaidatzen ari garen indar-oreka honetan– hoberena hartzeko, ona, edo hain ona ez dena, utzi behar izatea. Arazoa da kulturaren kasuan, ezagupen prozesuan, ezin dela kanpokoe-tatik hasi, ezin dela kanpoko sisteman oinarritu, gure sistema erabili gabe. Kultura arloan unibertsalismoa falazia

da, irudikeria, ez baitagokio horrelako unibertsalismorik bai denboraz, bai tokiz, bai ahalmenez, hain mugatuta dugun gizakiari. Proposatzen duen onura soziologikoa da, baina psikologia faltsu batean oinarriturik, ezagupenak ezinbestekoa baitu hurbil dagoena urrunera ailegatuko bada. Urruneko gauzez dugun ezagupena, gure hurbileko gauzetatik pasatzen da.

Ni beti harritu nau pixka bat, zeru-lurren esplikazio guztiak seriotasun beldurgarri sakonez ematen ari zitzaizkidanak, historiako, ekonomia-ko, filosofiako eta soziologiako arrazoi modu guztiak aipatzen zituztela, goitik, behetik eta aldetik, baina biologiako edo genetikako datu elementalenei ere jaramonik ez zieten inoiz egiten. Gizona, historia-ren eta kulturaren erreinuan dabilena, esklabua eta artista, bizitza emaile amodiozkoa eta hiltzaile krudela, ez ote da baita biologiaren eta genetikaren erreinuko izakia ere? (J. Azurmendi, *Gizaberearen pakeak eta gerrak*, 13 or.).

Ya vimos que la inmadurez del sistema nervioso precisa de estímulos, sin los cuales las neuronas se atrofian y empobrecen en sustancias químicas fundamentales, enzimas y DNA. No es que el recién nacido inválido necesite "apoyo" o "cariño", sino que ha de concebirse como un emisor de mensajes mediante los cuales trata de incorporar a las estructuras nerviosas aquellos últimos y refinados dispositivos que van a permitirle la máxima adaptación al mundo en torno. Esto se realiza por la incorporación no ya de la madre, sino de un conexo mucho más complejo. Formado, por un lado, por pautas educativas, sociales, tradiciones colectivas, esto es, tiempo e historia convertidos en "realidad cultural"; por el otro, representado por el juego de aproximación

amorosa y de alejamiento que permite el desarrollo de la autonomía e independencia del sujeto como una "mismidad" (Rof Carballo, *Biología y psicoanálisis*, 174 or.; J. Azurmendi, *Gizona abere hutsa da*, 156 or.).

Los genes de desarrollo, sin los cuales no se movilizarían las neuronas, ni se activarían las células matrices de las mismas en el epéndice, necesitan ser "activados" de una manera selectiva, conforme a la historia personal de los progenitores y a la cultura en que se mueven y a la tradición dentro de la que se ha ido forjando su existencia. Es la existencia del hombre, con sus complejas raíces en la colectividad y en la historia la que interviene ahora, en el proceso biológico, activando en tal o cual forma los genes de desarrollo y produciendo un estilo de configuración en el cerebro. No la simple influencia de estímulos exteriores (Ibid.184 or.).

Prozesu hori osatu gabe uste dezake norbaitek kanpokoei buruz zerbait dakigula, baina egiatan antzua izaten zaigu ezagutza hori, itxura hutsa. Eta biopsikologia oker batean oinarritzen denak, ez kulturari bakarrik, baizik emozioetan, sendimentuetan, gizakiaren nortasunean ahulezia ere dakarkiguke.

Har dezagun kulturaren azken definizioa, prozesu honekin bat datorrena: «eraiki dezakeguna besterik ez dugu ulertzen». Garbi gera dadila ondokoa:

a) Lur batean, gizarte-kontestu batean, kokatua eraiki behar da.

b) Gure ulertzeko ahalmena, muga-tugabea bada teoria mailan, zehaztu egin behar da zerbait eraikitzekotan.

c) Eraikitze-prozesua ulertze-prozesuarekin batera doa, erritmoa, tenpua, ematean.

d) Bata bestearen gainean eraikitzen da, elkar lotuz, uztartuz, ez metatze huts batean.

Ezagupenaren honelako prozesu batek kulturaren galaxian indar zentripetoari ematen dion eginkizuna funtsezkoa da, indar nagusia, itsasteko indarra baita.

2.4. Eusko kultur gaiak definitzen

Definitu hitza esanahi fisikoan hartzen dut, *zeintzuk* eta *nongoak* diren, besterik ez. Balizko esentziari buruz, metafisika subjektiboa baita, ez dugu ezer esango Euskal Herriko gaiak definitze honetan. Nolaketasuna aipatuko da noski, arlo eta gai bakoitzeko azterketan, baina Euskal Herrian gertatu diren neurrian, eusko gaiak dira eta kitto. Lurraldetasun honi dagokiona, beraz, hemengo landareak, bizidunak, kezkak, gertaerak, gizon-emakumeak, teknikak, artea, hemengo zera guztiak ditugu eusko kultur gaiak.

Gure ikastaro honen helburua eusko kultur gai hauek zeintzuk diren argitzea da, nola ditugun aztertuak, arloz arloko ikuspegi bat lortzeko. Eusko kulturaren egoera ezagutzea. Honekin nahikoa eta sobera dugu, oraingo, baina komeni zaigu hori egiteko orduan ondorengo urratsak zeintzuk ditugun jakitea.

Bigarren pauso bat, ikastaro honetan egingo ez duguna, dauden daudenekin antolaketa, sailkapen bateratua, Euskal Herriko kulturaren korpusa osatzea izango da.

Hirugarren urratsak gizarteratzea, izan beharko luke.

1- Gizarte-ekimen sistematik abiatzea.

2- Barneratze eragile-sistematik abiatzea, motibazioak eraginda.

Elzok esaten du:

Se trata de la construcción social de la identidad, donde las condiciones condicionan, pero no determinan.

Hamabi arlotan sailkatu ditugu kultur gai hauek, hezkuntzan ematen denaren arabera. Banaketa beste era batera egin daiteke, baina aurtengo helburuentzako argi xamarra dela ematen du. Gai gutxi geratu dira ukituko ez ditugunak: filosofia edo geologia kasu. Baita itsas kultura dei dezakeguna ere.

2.5. Aurrenekoak

Euskal Herriko kultura ez da gaurkoa. Gu baino lehenagoko jendea izan da gure kulturaren zaindari. Zeintzuk, zein taldetan, eta abar, jakingo dugu arloz arloko izango ditugun hitzaldietan. Baina orokorrean harturik komeni zaigu zer edo zer laburpen gisa, telegrafikoki, aurreratzea.

XVIII. m.: - Aita Larramendi, Aitor, Fabulazioak.

- Azkoitiko Zalduntxoak, Euskalherriaren Adizkideak. Conde de Peñafloreda. Ilustrazioa.

XIX. m.: - Navarro Villoslada.

- Juan Ignacio Iztueta, kantu- eta dantza-bilduma.

- Bonaparte printzea: beste hizkuntza batzuetako euskalariak.

- Euskara Elkartea, Iruñean, Arturo Campión, etab.

- Antoine d'Abadie: Lore-jokoak.

- Sabino Arana. Nazionalismoa. Partidismoa, ez alderdikeria, agian, baina politika banatzailea sortzen duena gure artean.

- XX. m.: - RIEV
 1918 - Eusko Ikaskuntza. Euskaltzaindia. Errege eta guzti.
 - Ikastola, Unibertsitatea, Estatutua, batua...1936.
 1950 - Aranzadi Zientzi elkarte.
 1960 - Kantautoreak. Euskal Herriko militanteak. Oteiza.
 1968 - Arantzazu. Batua.
 1970 - Ikastolak. AEK.
 1972 - Miarritzen UEU euskara hutsez hasten da.
 1978 - Eusko Ikaskuntza-ren bigarren aldia.
 - Jakin, Argia
 1980 - Irratiak. ETB. EUTGn "Cultura vasca", bi liburu erdaraz.
 - UZEI. Itzultzaileen Eskola.
 1990 - Egunkaria. LKA : Euskal Herria errealitate eta egitasmoa I, II. Elebiduna.
 1992 - Euskal Ikasketak, Deustuan.
 1993 - Entziklopediak: Lur, Eusenor.
 - Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua: Eusko Ikaskuntzak Hezkuntz Sarean.

Errepikatzen diren arazoak dira hizkuntzarena, indar-banaketarena (ez hainbeste hizkuntza arloan) eta orohar ahulezia.

2.6. Hausnarketa praktikoak

2.6.1. Euskaraz egitearen garrantzia

Honaino helduta, gehientzat garbi izan beharko luke lan honen edukina adierazteko aukeratu dudak izenak, (*eusko kultur gaiak*) ez duela estali behar gure kultur gaiak erdaraz tratatzeko asmo izkuturik. Baina balizko zalantzaren bazterketa egitearren, beharbada bi hitz gehiago ez dira sobera izango.

Kanpoko kulturaren ondorioak gure herri-nortasunaren aurka kaltegarri izan ez daitezen, gure kulturaren ezaugarriak zeharo ezaba ez ditzaten, atzerriko kulturetatik asimilatu behar ditugu guretzat dituzten alderdi onak. Elikadura bezala, hartu, gizarte honen sabelean berotu, egosi eta horrela gure herri-gorputza bizkortu. Bestela, buruaren gainean harriak bezala erortzen bazaizkigu, zapalduko gaituzte, ez aberastuko.

Jakin badakit, nik neuk euskara berandu ikasita, zein egoeratan dauden euskararen ezagupen eta erabilpena. Gehienetan euskaraz egitea ez da lana erraztea, biderkatzea baizik. Baina, gure kulturaren bilketa-, azalpen- eta jorratze-lanetan, ez badugu euskara erabiltzen, alde batek ez dugu inoiz arlo horietan duten euskal sakontasuna ikertuko, ez azalduko. Gure gorputza ez badugu euskaraz ezagutzen, atalak, egiten diren lanak, gaixotasunak, arlo horri buruz euskarak dituen ikuspegi eta jokaerak ez ditugu ezagutuko.

Bestalde, kultur gaiak duten izana euskaraz izendatzen ez dugun heinean, euskara bera ere antzua geratuko zaigu, erabilpen ezaren ondorioz.

Hizkuntzaren lurraldetasuna, kulturarekin batera, elkarri laguntza emanez, landu beharko dugu.

Beraz Euskal Herriko kulturaren bilketa egiteko, lan hori euskaraz egingo duen taldea biltzea ikusten dut lehenbiziko eta ezinbestekoa.

Egia da, eusko kulturaren ikerlana eta hedapena (baita euskararena bera ere), edozein hizkuntzatan egin daitekeela, eta egiten ari da. Ona da

egiten den hizkuntzarako eta, neurriak neurri, ez du zergatik gure kalterako izan behar beti. Baina euskararen gainean, gure gizarte eta kulturari dagokion hizkun-tzaren gainean, zubi eginez, euskara ukitu gabe pasatzen bada, zaila izango da gure kulturaren defentsan edo onerako egin dela aldarrikatzea.

Gure kultura bilduko eta eraikiko badugu, kosta ala kosta, euskaraz egin beharko da hasieran edo erdian, baina beti amaieran. Hiru une hauetan euskaraz egiteko parada baldin badago, hainbat hobeto.

2.6.2. Ikuspegi diakronikoa

Kultur arlo batzuetan, historian edo literaturan bereziki, berezko metodologiak eskatzen du ikuspegi diakronikoa erabili beharra. Beste batzuetan ordea, errazegi ahazten da antzina izan zen egoera edo ikuspegia, eta azterketa garaikidea azalduz gero, honako egoera honetara nola heldu garen, arlo horren ikasketen bilakaera nolakoa izan den eta guk baino lehenxeago gai hori jorratu duten gizon-emakumeen izenak, esandakoak eta egindakoak ez ditugu kontutan hartu.

Lan honen helburua herri baten kultura sistematikoki gorpuztea izanik, garrantzi handikoa dugu arlo eta atal guztietan ikuspegi diakronikoaz jantzita aztertzea eta azaltzea. Natur zientziek, geografiak, giza eragileek, geologiak berak, guztiek, badute iragana. Egun batetik bestera ez dira gauden oraingo tratamendura iritsi. Zein egoeratan dauden jakitea ez dugu nahikoa arlo bakoitzaren ikasgaia kaleratzeko. Kulturagai bakoitzaren historiografia taxutu behar da.

Gaur modan dugun ekologia adibide hartuta, ez da nahikoa gure mendi,

ibai, itsasertzak eta abar, nola dauden eta zein arazo dituzten aipatzea. Interesgarria dugu oso honako egoera honetara nola iritsi garen jakitea, izan diren hondamendien kausak eta eragileak ezagutzea, arrazoiak eta ondorengo aterabideak argi gera daitezzen nahi badugu. Txernobilen leherketan izan ziren ondorioak edo-nork dakien zerbait da. Baita zein mailataraino kaltegarriak izan diren ere. Baina Txernobil kasuraino iristen den giza nahikeriaren katearen begiak banan bana aztertzea dugu gertatukoaren ikasgai adierazgarriena.

2.6.3. Kultura eta kulturgileak

Kultura ez da izadiak ematen duen zerbait, ez eta natur zientzien arloan ere. Gaindituta dago zientziaren esparru guztietan esentzialismoaren garaia. Euklides edo Einsteinen teoriak, garai batekoak dira, eta ez bata ez besteak ez digu argitzen errealitatearen egia eta izana osorik.

Hortaz, baztertzekoak dira kultur estatismoa, dogmatismoa eta azalezko orotasuna. Datu batzuk izan zituzten, ditugu eta izango ditugu. Datu horien interpretazioa, berriz, bata era batean uztartu zuen eta besteak, bestela. Eskola edo kulturbide guztiek beren alde onak eta txarrak dituzte.

Gure kultura, kultura izateagatik, anitza dugu, txikiena den zehaztasunetan ere. Jarrera kritiko batez tratatu behar da. Kultura ez baita izan den edo dagoen zerbait, eraikitze-prozesuan dagoen pentsaera baizik. Ez da ematen. Eman daitezkeenak kultur gaiak dira. Norberaren lana da kultura. Bakarka edo elkarlanean, eraiki egiten da kultura. Beraz, kulturegileak, taldeak edo pertsonak, ahal den neurrian identifikatzea garrantzitsua zaigu.

2.6.4. Lurraldetasuna

Kultura berez gizakiari dagokio, ez lur-eremu bati. Horregatik Euskal Herriko kulturatzat, Euskal Herrian bizi izan diren edo garen gizartearena hartu beharko genuke. Halere gizartea mugatzeko orduan, praktikan, marku geografikoa hartu ohi da nazio guztietan, eta gure kasuan ere proposamen honen marku, egun dugun zazpi herrialdeetako lurraldetasuna komeniko zaigu abiapuntutzat hartzea.

Marku honen baitan izan diren kultur emaitzak eta horien eragileak, alegia, izango dira gure lanaren aztergai zuzena. Honek ez du esan nahi inguru hurbilean, hemengo gizartearekin zerikusia duen hainbat gertaera edo errealitate, zeharka, noiz-noizean landu behar ez denik.

2.7. Oinarrizko adostasuna eta urratsak

Abiapuntua:

1. Eusko kulturaren estatusa nahas-mahas batean dago, lurrak eta urak bereizi baino lehenagoko egoeran, Bibliak dioenez.

2. Eusko kulturaren korpusa osatzeko, Euskal Herrian kultur arlo bakoitzean izan diren pertsonak eta emaitzak bildu, aztertu eta sailkatu behar ditugu.

3. Euskaraz egin behar den zerbait da. Baina euskaraz jartze hutsarekin kultura euskaratu egiten da, ez euskaldundu.

Euskal kultura-ren izena bera ere argitu beharra dago: euskal kultura, munduko edozein kultura, fenomeno edo emaitza, euskaraz azalduta da.

Euskararekin lotura zuzena adierazten du.

Eusko kultura, berriz, Euskal Herriko kultura, edozein kultur fenomeno, batzuetan mailegua, bestetan autoktonoa, noiz noizkoa den argituz. Beraz, hemengo kultura, bizimodua, zientzia, artea, edo gizartearekin lotura adierazten duena da; baldin balego, bertako nolakotasunaz jantzitako zerbait.

Hemengo proposamena euskal kulturaren barnean eusko kulturagaiei zor zaien garrantzia eta arreta ematea da.

4. Eusko Kulturagaien korpusa osatzeko, arloz arloko bilketa, sailkapena eta bilduma egiten has daiteke.

Ikastaroa antolatzeko abiapuntu gisa hartutako behin-behineko gai sailkapena

1. HISTORIA :

- Prehistoria, Arkeologia
- Antzin Aroa
- Erdi Aroa
- Aro Modernoa
- Aro Garaikidea

2. GEOGRAFIA:

- Geografia Fisikoa
- Geografia Politiko eta Administratiboa
- Demografia

3. GIZARTE ETA EKONOMI ZIENTZIAK:

- Harreman ekonomikoak:
 - eragileak: - naturazkoak
 - teknikazkoak
 - diruzkoak
 - nomikoa
- egitura eta bilakaera diakronikoa

- Giza harremanak:
 - Jarrerak: - gizarte-multzoak
 - etika balio-
-sistemak
 - jokabideak
 - Euskalerrigintza
 - Egitura eta bilakaera diakronikoa
4. ZUZENBIDEA:
- Eusko Zuzenbidearen historia
 - Herrialdeetako zuzenbidea
 - Egungo egoera eta jokabideak
 - Zuzenbideko euskal hiztegi garaikidea
5. NATUR ZIENTZIAK:
- Zoologia
 - Botanika
 - Ingurugiroaren historia
 - Ekologia
6. OSASUNA:
- Gorputza
 - Osasunbideak
 - Osakidetza: - konbentzionala
- naturala
 - Sendabelarrak, ezaugarriak eta erabilpena.
7. ETNOLOGIA:
- Etnografia
 - Lanbideak
 - Eskulangintza
 - Ohiturak
 - Sinismenak
 - Herri-kirolak
8. ARTE EDERRAK:
- Arkitektura. Hirigintza.
 - Pintura
 - Eskultura
9. MUSIKA:
- Instrumentuak
 - Musikagileak
 - Kantua
10. DANTZA
11. HIZKUNTZALARITZA:
- Batuaren historia
 - Euskalkiak
12. LITERATURA:
- Idatzia
 - Antzertia. Pastoral.
 - Ahozko literatura. Bertsolaritza.